

José Antonio Santano

«Mugaz gaindiko kooperazioa krisian dago»

Irun, 1965. Zuzenbidean lizentziatua, 18 urterekin Espainiako Estatuko zinegotzirik gazteena izan zen. Txikitan Real Unionen jokaturakoa eta orain Bigarren Mailako talde honen jarraitzaile handia, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gaztedia eta Kirol diputatu ere izan zen. Egun, Gipuzkoako Batzar Nagusietan eta PSE-EEko Zuzendaritzan egoteaz gain, Irungo alkatea da 2002tik. Maiatzean, berriz ere PSEko hautagaia izango da Gipuzkoako bigarren hiririk handieneko Udalerako.

Azken hauteskundeetan EAJ-EA koalizioa gertu izan zenuten.

Egia esan, EAJ-EA gertu 1999ko hauteskundeetan izan genuen: guk 8 zinegotzi lortu genituen eta eurek beste 8, chunka botoko diferentziarekin. 2003an ordea, 1.600 boto-ko diferentzia egon zen eta guk zinegotzi bat gehiago lortu genuen. Hauteskunderi begira baikorra naiz, gestio ona egin dugu eta nahiz eta denetak bezala gure lanak akatsak izango dituen, oro har hiriak asko aurreratu duela ikusten dut, bai gai estrategikoetan eta baita bizitza kalitatean ere.

Oposizioari ez diozue beldurrik, beraz. Irungoa oposizio gogorra al da?

Ez dakit ni ote naizen oposizioa kalifikatu behar duena, baina ez diogu inongo beldurrik. Gainera, politika lokalean norberak bere proiektua aurkeztu behar duela uste dut eta guk hala egingo dugu.

Eta irabaziz gero, PPrekin koalizioan jarraituko al zenuke, Espainian bi alderdien arteko giroa nola dagoen ikusita?

Paktuak ez zaizkit burutik pasatzen hauteskunde garaian, eta gutxiago PPrekin. Inoiz ez dut PPrekin pakturik egin nahi izan. Hain zuzen, 2003ko hauteskundeetatik 2005 urte erdialdera

MIKEL GARCIA
Argazkiak: Dani Blanco



arte bakarrik gobernatu genuen, EAJ-EArekin adostutako akordio zehatzekin, eta hauei elkarrekin gobernatzeko proposamen formala egin nien, baina EAJk ez zuen nahi izan. Guk 25etik 9 zinegotzi ditugu eta Irunen oso proiektu garrantzitsuak daude: lau urteotan 60 milioi euro baino gehiago inbertitu

ditugu eta hori, onerako edo txarrerako, gehiengoarekin baino ezin da egin.

PP ez dut gustuko eta eurekin gestio proposamen batzuk paktatzeaz aparte, ezin dugu askoz urrutirago heldu.

Eta EAJk koaliziorako aukera izaten jarraitzen du?

Hori euren esku egongo da. Bi EAJ ikusten ditut, herrialdearen bi ikuspegi desberdinekin, baita Irunen ere, eta euren esku dago Irungo etorkizunean zein funtzio jokatu nahi duten. Nik, dudarik gabe, alderdi guztiei eskua luzatzen diet kolaboratzeko eta hirian proiektuak aurrera ateratzeko.

Ondo irudituko litzaizuke Irungo Abertzale Sozialistak taldea hauteskundeetara aurkeztu ahal izatea?

Aurreko hauteskundeetan [ezker abertzaleko] Irun Herria aurkeztu zen eta legearekin bete zutenez parte hartu zuen. Ahal bada sentsibiltate guztiak ordezkatuak egon behar dira. Noski, legea bete behar dute,

baina hori oinarritzkoa da. Duela lau urte egon baziren, Irunen ez du zertan orain arazorik egon behar.

Alardea gatazkarik gabe

Alardea gai garrantzitsua da Irungo boto-emaileentzat. Eragiten du Udal Gobernuak alardearekiko duen jarrerari?

Alardearen kontuan, zenbat eta akordio politiko handiagoa izan eta alkateak edo talde politiko batek protagonismo gutxiago, hobe. Lau urteotan, alardearen inguruan hartu diren erabakiek ahalik eta adostasun politiko handiena izan zezaten saiatu naiz. Udalean ez dago batasunik gai horretan, baina gehiengo handi batek ikusten du festa ulertzeko bi modu daudela, biak errespetagarriak; errespetatu ditzagun festa egiteko eta egokien iruditzen zaien eran egiteko batzuen eta besteen esku-bideak. Bide horretatik legalki eta politikoki ongi egin dugula uste dut eta ez dugula gizarte irundarra puskatu, funtsezkoa dena. Nire nahia da iaz bezala aurten ere alardea ongi irtetea, inongo gatazkarik gabe.

Baina egia da baten alde egiten dela, alkateak alardeetako batean –tradizionalen– parte hartzen baitu.

Guri alarde batek baino ez digu baime-na eskatzen kalean ikuskizuna egiteko. Beste alardeak, mistoak, Barne Sailari eskatzen dio baimena, manifestazio bezala. Hau da, nik beti azkeneko unean dut manifestazio horren berri, eta Barne Sailaren eskutik. Modu batean, eurak dira euren ekitaldia zer-bait desberdintzat hartu nahi dutenak. Dena den, horren guztiaren gainetik elkarbizitza da garrantzitsuena.

Gipuzkoako batzarkide izanda, Irunek Gipuzkoan protagonismorik duela ikusten duzu ala oraindik askori urruti gertatzen zaion hiria da?

Bigarren hiri populatuena izateaz gain, azken 10 urteotan arlo guztietan gehien garatu eta hazi denetakoa da. Primera-ko merkataritza eta zerbitzuak ditugu, museoa, Ficoba azoka, oso kontserbatorio ona, hezkuntza eskaintza bikaina, jende ekintzailea... Errealitate hori hor dago eta kontuan hartzen hasiak dira, baina egia da batzuetan Gaintxurizketa Himalaia bezalakoa dela eta urrutiegi sentitzen garela. Etorkizunean hori konpontzen joango dela espero dut, Bidasoa bailarak Gipuzkoan eginkizun oso garrantzitsua duelako. Ez gara oso ezagunak eta Gipuzkoako Foru Aldunditik eta Eusko Jaurlaritzatik ez dugu gauza askotan babesik izan.

Alderdi desberdinekoak zaretelako?

Ez dakit, ziur horrek eragina izan duela, eta baita hiriari buruzko ezjakin-

tasunak. Kontua da Irungo edozein herritarrek esango dizula batzuetan hiriburutik 18 kilometrora baino, 1.800era gaudela dirudiela.

Halere, Ficoba azoka ireki zen Irunen. 2003an inauguratu zen eta oraindik ez dirudi oso arrakastatsua denik...

Ficoba askoren iritziaren kontra inauguratu zen. Beti planteatu dugu hau Gipuzkoako azoka-esparrua izatea, mugaz gaindiko xedearekin, baina batik bat Irungo herritarren bultzadarekin eta Europar Batasunaren diru laguntzarekin egindako proiektua izan da, Eusko Jaurlaritzak ez duelako bate-re lagundu eta Aldundiak oso gutxi. Harritzekoa dena da bakartasun horrekin eta egunez egun trabak jarri dizkiguten arren, 2007an azokak 1.800.000 euro fakturatu izana, eta Udalak ez iaz eta ez aurten ez dio diru laguntzarik eman behar izan. Oraindik ibilbide luzea du egiteko, hiru urte baino ez dituelako, baina harro gaude eta gainera Irunentzako erreferentzia gunea da.

Trabak aipatu dituzu. Nola eragin dio BEC azokak Ficobari?

Bere garaian Ficobaren aurka doazen arauak egin nahi izan ziren EAEn, Gipuzkoako Foru Aldundiaren babesarekin, eta horrek bereziki mindu ninduen. Batzuetan bazirudien handiak txikiari beldurra ziola. Ondoren ikusi dugu Ficobari azoka bat egitea

Euskararen egoera Irunen

Kontseiluak 10etik 4,76 puntu eman berri dizkio Iruni euskarari dagokionez. Hainbat udal-iragarki gazteleraz baino ez direla ateratzen kritikatu du batik bat.

Irun Lekeitio edo Azkoitiaren atzetik dagoela irakurtzea ez da ezustekoa izan niretzat, bai ordea aldea hain handia ez dela ikustea. Irunen, arrazoi historiko eta soziologikoengatik, euskararen presentzia Gipuzkoako beste hainbat herritan baino txikiagoa da, baina nondik gatozen ikustea eta egiten ari garen ahalgina baloratzea ere gustatuko litzaidake: Biziberritzeko Plana onartu dugu, Euskara sail indartsua dugu, ondo dabilen euskaltegia, sustatzen ditugun euskarazko argitalpenak... Nola geunden duela bost urte? Iaz 600.000 euro baino gehiago bideratu genituen arlo honetara eta aurten ziu renik aurrekontua handiagoa izango da, oraindik egiteko asko dagoela dakidan arren.

bururatzen zaionean hurrengo urtean errepikapena daukagula BECen –esaterako, Mendiexpo–, eta gainera diru laguntza publikoarekin askotan. Kopiatzea erraza da boteretsuaren babesarekin, hemen 2007ra arte Eusko Jaurlaritzarekin hitzarmenik izan ez dugunean. BECek duen defizit handiarekin diru laguntza asko jasotzen ditu eta ez gara berdintasun egoeran lehiatzen ari. Nire ustez, bi proiektuak osagarriak dira eta BEC beharrezkoa da, baina min ematen dit batzuek hainbeste eta besteok hain gutxi izateak.

Ficoba ez da turismoan jarri den indar bakarra. Iaz Oiasso erromatar museoa inauguratu zen, barkuek zuzenean Irunen lurra hartu ahal izateko proposamena martxan da, Aiako Harrian ere proiektua dago... Turismoa da oraindik gaititu gabeko irakasgaia?

Irun ez da hiri turistikoa eta onartu beharra dago, batez ere beste gauza batzuek bizi gara: hiri komertziala gara eta garraio modernoak, industria indartsua edota zerbitzu onak ditugu. Hala ere, Irunek baditu elementu oso erakargarriak ingurua bisitatzera datorren turistarentzako eta oraindik asko hobetu dezakegula egia da.

Irun, Hondarribia eta Hendaia biltzen dituen Txingudiko Mankomunitatearen lana bateratua da ala bakoitzak bereari tiratzen dio?

Bidasoa marka promozionatzeko lan handia egiten ari gara turismoari begira, baina gainerakoan kooperazioa hasi baino ez da egin. Herriarteko harreman historiko, kultural eta sozial handia dugu, baina proiektu strategi-

“PP ez dut gustuko eta gestio proposamen batzuk paktatzeaz aparte, ezin dugu askoz urrutirago heldu”

koetan erakunde mailako harremana zaila izaten ari da. Mugaz gaindiko kooperazioa nolabaiteko krisian dagoela esan daiteke, maila zabalagoan: Euskadi-Akitania artean, esaterako. Kooperazioa ezinbestekoa dela uste duenetakoa naiz, baina une hauetan bi aldeetan gehiago begiratzen diegu gure aukerei, lehiakortasunaren ikuspuntutik, eta leku gutxi uzten diogu kooperazioari. Biarritzek azoka-esparrua eraikitzea aurreikusi du, guk hemen bat izanik, eta horrek eta beste adibide askok erakusten dute praktikan ez dagoela ikuspegi bateraturik.

Orduan Baiona-Donostia Euskal Hiria ez da bideragarria?

Bai, bada, eta beharrezkoa da gainera. Bateragarria den hiri-espazio zabala osatzen dugu, beste hainbat arlotan lehiatzen bagara ere. Ikusten dudana da kooperazioaren espiritua ez dagoela bere onenean, baina pasako dela uste dut.

“BECentzat kopiatzea erraza da boteretsuaren babesarekin, Ficobarentzat 2007ra arte Jaurlaritzarekin hitzarmenik izan ez dugunean”

Erraustegi propiorik ez

Mankomunitaterako erraustegi propioa eraikitzeke, ordea, adostasuna egon zen Irun, Hondarribia eta Hendaiaren artean. Azken berria izan da ez dela eraikiko. Ezustekorik izango al da hau-teskundeen ostean?

Ez, nire jarrera argia da: Gipuzkoarako erraustegiaren proiektua aurrera aterako dela dirudi eta birziklatu eta konpostatu ezin diren hiru hirietako hondakin solidoak Gipuzkoako erraustegi horretara eramatea proposatuko dut Mankomunitateko batzordean. Zer aldatu den? Hasteko, bi urte eta erdi eman ditugu sistema eztabaibatzen, erakundeen arteko adostasunik gabe. Azkenean badirudi mundu guztiak onartzen duela hondakinen katearen amaierarako konponbidea erraustea dela eta Donostiako Udalaren eta mankomunitateen artean kokalekurako akordioa lortu denez, horretara gehitzea da gure planteamendua.



“Batzuetan Gaintxurizketa Himalaia bezalakoa da eta urrutiegi sentitzen gara Irunen. Hiriburutik 18 kilometrora baino, 1.800era gaudela dirudi”.

Hondakinez ari garela, udal garbitzaileek 70 egun baino gehiagoko greba burutu zuten iaz eta ikastetxe ugari ixki behar izan zuten. Negoziaketa zailak izan ziren orduan. Datorren apirilaren 20an mobilizazioak hasiko dituztela iragarri dute berri, Udalaren ordu gutxitzeagatik.

Sindikatuarekin bilduta egon naiz eta ez dago ordu gutxitzerik: datuak ditugu eta iazko ordu berak dira. Gainera, eskutitza bidali dut ikastetxeetara eta oro har denek ordu kopuru bera izango dute. Beraz, ez dut uste inongo arazorik egongo denik.

61.000 biztanleko hiria izanik, azpiegitura nahikoa ez dagoela dirudi askotan. Kirolaren kasuan, esaterako, Hondarribiko kiroldegia gainezka dago Irungo jende askok izena han ematen duelako. 90eko hamarkadan, beste herriak ekipamenduetan inbertitzen ari ziren bitartean, Irunek krisi ekonomiko izugarriari aurre egin behar izan zion eta adibidez industrian asko inbertitu zen. XXI. mendean bat-batean konturatu gara ekonomikoki askoz hobeto gaudela, baina hiri moderno baten ekipamenduak falta zaizkigula eta ahal dugun azkarren ari gara hori konpontzen. Kirola diozu: bigarren kiroldegia eraikitzen ari gara eta ziurren hirugarren bat beharrezkoa izango da, baina zerbait aurreratu dugu. Egiten ari diren arraun eta piraguismo pabiloia ere ikusgarria da, trinket bat bukatzen ari gara, estalitako frontoi bat egiteko helburua ere badugu, auzoetan kirol instalakuntza gehiago egin nahi ditugu... Beste hiruzpalau urtetan maila emango dugula uste dut.

Babes Ofizialeko Etxebizitzak ere proportzioan ez dira asko.

Legealdi honetan 350 zozketatu ditugu: gutxi dira, baina aspalditik legealdi batean egin den kopuru handiena. Gaia bideratzeko elkarteak sortu behar izan genuen, ikusi genuelako eskumen handiena zuenak, Eusko Jaurlaritzak, ez zuela hemen politika berezirik garatu. Lau urteotan egin dena guk bakarrrik egin dugu eta 2008an beste 700 zozketatu nahi ditugu eta beste 800 aireportuaren auzia konpontzen denean...

Zein da Hondarribiko aireportuarekiko Udalak duen jarrera?

Aireportuan egiten denak Irungo garapena ez dezala mugatu. Egun muturra den lekuan segurtasun tarte egiteko aukera ematen duen proiektua planteatzen dugu guk, baina inolaz ere 600 metroko luzapena, lehen zioten moduan.

Bloga daukazu, herritarrekin komunikatzeko. Zapaterok kafea 80 zentimotan zegoela esan zuelako egon zen zalapartarekin, bide ona da bloga herritarrengandik gertuago egoteke?

Nik badakit kafea zenbatean dagoen, 1,10 eurotan batez beste, baina egia da kafeak ez duela berdin balio leku guztietan. Blogean denetik esaten didate, kritikatzeko, zoriontzeko edota galdetzeko, aparkalekuei, etxebizitzei, isunei, enpleguari... buruz, gai lokalei buruz, hori delako herritarrei interesatzen zaiena. Eta erantzuten duena ni naizela ziurtatu dezaket. ■